



Curriculuma	Jaime Altuna
--------------------	--------------

Jaime Altuna (Villabona, 1973). Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin bazituen ere, bere ibilbide profesional osoa haur eta gazteen heziketarako programetan egin du. Arlo honetan 2002. urte arte lan ezberdinak egin zituen: kale antzerkia haurrentzat, telebistako haur saioen produkzio laguntzaile lana, ipuin kontalaritza eta irakurketa sustatzeko programak, kale animazio zerbitzuen antolaketa, udalekuak... Horrekin batera, 1997. urtetik, Gipuzkoako Urtxintxa Aisialdi Eskolan aisialdia, jolasa eta hizkuntza arloak uztartu ditu hainbat programen bidez.